

6 ZKI.

**ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK
ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA.**

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.-

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. artikulua.-

Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzten du zergagaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.-

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2.- Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

- a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.
- b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraispen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimendua barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.
- c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: obren eraikitzaileak edo kontratistak.

5. artikulua.-

Tasak ordaintzera behartuta daude:

- a) partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.
- b) partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

6. artikulua.-



2011KOFO0001

Ordenantza honetatik eratortzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua-

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. OINARRI EZARGARRIA

8. artikulua-

Oinarri ezargarrria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzten du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA

9. artikulua-

1.- Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua-

1.- Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua-

Administrazio Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. artikulua-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. AMAIERAKO XEDAPENA

Honako ordenantza fiskala eta bere eranskina 1989ko irailaren 29an izandako Osoko bilkuran onartua izan zen eta 1990eko urtarrilaren batean indarrean sartu zen. Ordenantza hau aplikatu egiten da aldaketen historialean jasotzen diren aldaketekin eta indargabetzea erabakitzen den arte indarrean egongo da.

XI- ALDAKETEN HISTORIALA

Osoko bilkuran onartutako eguna	G.A.O.n argitaratutako zenbakia eta eguna	Indarrean sartu den eguna	Aldatutako artikulua
1989 IRA 29	247- 89 ABE.30	90 URT 1	Hasierako onarpena
1990 URR 04	250- 90 ABE 31	91 URT 1	Kopuruak.



2011KOFO0001

1991 IRA 26	248- 91 ABE 31	92 URT 1	Kopuruak.
1992 URR 01	234- 92 ABE 09	93 URT 1	Kopuruak.
1993 URR 14	249- 93 ABE 31	94 URT 1	Kopuruak.
1994 URR 10	234- 94 ABE 13	95 URT 1	Kopuruak.
1995 URR 09	233- 95 ABE 11	96 URT 1	Kopuruak.
1996 URR 07	237- 96 ABE 10	97 URT 1	Kopuruak.
1997 URR 06	243- 97 ABE 22	98 URT 1	Kopuruak.
1998 URR 22	247- 98 ABE 29	99 URT 1	Redakzio berria epigrafeen aldaketekin eta H), I), J), K) eta L) epigrafe berriak sortzea.
1999 URR 18	247- 99 ABE 28	00 URT 1	Kopuruak.
2000 URR 16	246- 00 ABE 29	01 URT 1	Kopuruak. M) epigrafe berria.
2001 URR 15	249- 01 ABE 31	02 URT 1	Kopuruak.
2002 URR 14	247- 02 ABE 31	03 URT 1	Kopuruak.
2003 URR 09	249- 03 ABE 31	04 URT 1	Kopuruak.
2004 URR 13	247- 04 ABE 27	05 URT 1	Kopuruak. Zaria Zinemaren epigrafea ezabatzea.
2005 MAI 09	133- 05 UZT 14	05 UZT 14	Kiroletxeko kopuruak.
2005 URR 10	247- 05 ABE 30	06 URT 1	Kopuruak.
2006 URR 16	247- 06 ABE 30	07 URT 1	Kopuruak eta hiri hondakinen bilketaren epigrafearen argitalpen osoa.
2007 URR 08	243- 07 ABE 14	08 URT 1	Kopuruak.
2008 URR 13	251- 08 ABE 31	09 URT 1	Kopuruak.
2009 URR 05		10 URT 1	Kopuruak. Urats-Gain Z.Egoitz. epigrafea ezabatzea.
2010 MAR 01	75- 10 API 26	10 API 26	Haur eskolako kopuruak
2010 URR 07	244- 10 ABE 23	11 URT 1	2010eko irailetik abendura. Kopuruak eta 2 eta 4 ordu bitartean kurtsiloak.
2011 URR 10	239- 11 ABE 20	12 URT 1	Kopuruak.

ALKATEA,

IDAZKARIA,



ERANSKINA

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA.

A. HIRI HONDAKINEN BILKETA, GARRAIO ETA KUDEAKETA ZERBITZUA

1. artikulua. Lege-oinarrria.

Apirilaren 21eko 10/98 Legeak -Hondakinena-, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak -Tokiko Araubidearen Oinarriena- eta aplikagarria den beste araudian ezarritakoaren arabera, Tokiko Erakundearen ardura da hiri hondakin eta asimilakorren bilketa, garraio eta kudeaketa zerbitzua ematea.

Udal honek, aipaturiko zerbitzua Debagoieneko Mankomunitatearen bitartez ematen du.

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak -Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen- 20. artikuluan ezarritakoaren arabera, Udal honek jarraituko du zerbitzu honi dagokion tasa ordainarazten.

2. artikulua. Definizioak.

- a) Hiri Hondakin eta asimilakorrak: apirilaren 21eko 10/98 Legeak -Hondakinena- finkatzen duen definizioa.
- b) Bilketa puntua: nahastutako hiri hondakinak (zaborra) biltzeko finkatutako puntua, bai lurreko puntuak, bai edukiontziak dauzkatenak. Ez dira sartzen definizio honetan gaikako bilketak egiteko puntuak edo edukiontziak.

3. artikulua. Zerbitzuaren erabilera.

Mankomunitatearen zerbitzua, indarrean dauden Legeak, Erregelamenduak eta Arauak errespetatuz erabiliko da.

4. artikulua. Egitate zergagarria.

Hiri hondakinak bildu, garraiatu eta kudeatzeko zerbitzua ematea da. Hiri hondakinaren gaikako bilketak ez dira egitate zergagarriak tasa honi dagokionez.

5. artikulua. Zerga ordaindu beharra.

Derrigorrezkoa eta orokorra den zerbitzu hau ezartzeak sortzen du. Zerbitzuaz etxebizitzaren eta merkataritza, industria eta zerbitzu-jardueren titularrak baliatzen direla ulertzen da, eta hau ordaindu beharretik ez da pertsona fisiko edo juridikorik salbuetsita geratuko.

6. artikulua. Subjektu pasiboak.

2011KOFO0001

Etxebizitzaren baten -bertan norbait bizi edo ez- edo merkataritza, industri eta zerbitzu-jarduerak egiteko, edozein titulurengatik, lokalen baten jabe edo okupatzaile diren pertsona fisiko eta juridikoak harrapatzen ditu tasa honek.

Ez dira subjektu pasibotzat hartuko:

1. Ibilgailuen garajeen titularrak, horietan ez bada irabazi-asmoko jarduerarik egiten.
2. Etxebizitzarekin zerikusirik ez duten, edozein motatako jarduera gauzatu daitekeen lokal eta etxabeak, jarduera hori ematen ez den bitartean.
3. Aurri-deklarazioa duten eraikinen edo, aurri-deklaraziorik gabe ere, objetiboki beraietan inor bizitzeko moduan ez dauden eraikinen jabeak.
4. Udal ongintzaren erroldan barne harturik dauden zergadunak.
5. Udal ongintzak guztiz mantentzen dituen asiloak eta gainerako antzeko zentroak, inolako dirulaguntzarik ez dutenak.

Subjektu pasiboa epealdiaren lehenengo egunean etxe edo lokalaren jabea edo jabe-komunitatea dena izango da. Maizterrak jabearen baimena beharko du hiri hondakinen bilketa zerbitzuan bera zergaduna izatea nahi badu. Maizterrak jabeak sinatutako alokairu kontratua aurkeztean baimena emantzat joko da.

7. artikulua. Zergadunen sailkapena.

Tasa hau aplikatzeko, ondoren zehaztuko diren kategoria, talde eta azpitaldeetan sailkatuko dira zergadunak.

KATEGORIA 1. Etxebizitza partikularrak	Azpitaldea
Taldea 10. Etxebizitza partikularrak	
Etxebizitza partikularrak	101
KATEGORIA 2. Biltegiak eta komertzioak	
Taldea 20. Biltegiak oro har	
Biltegiak oro har	200
Olio-biltegiak	201
Edari-biltegiak	202
Koloni biltegiak	203
Pentsu-biltegiak	204



2011KOFO0001

Paper eta pintura-biltegiak	205
Industri produktuen biltegiak	206
Zur eta egur-biltegiak	207
Burdin biltegiak	208
Taldea 21. Jantzi-dendak	
Boutique eta jantzigintza	210
Artile dendak	211
Kinkila dendak (mertzeria)	212
Moda dendak	213
Ehun dendak	214
Tindategiak eta ikuztegiak	215
Zapata eta oinetako-dendak	216
Euritako, eguzkitako eta kapela dendak	217
Taldeak 22/23. Luxuzko gai eta apaingarrien dendak	
Arma dendak eta Ehiza eta Arrantzarakoak	220
Kirol dendak	221
Drogeriak	222
Bitxi dendak	223
Jostailu dendak	224
Liburu dendak	225
Ile apaindegiak eta edertze-aretoak	226
Lurrindegiak	227
Opari dendak	228
Erloju dendak	229
Taldea 24. Etxea egokitzeko artikuluen dendak	



2011KOFO0001

Elektrizitate-dendak	240
Elektratresna-dendak	241
Burdingegi eta brikolaje dendak	242
Altzari-dendak	243
Paper eta pintura-dendak	244
Saneamendu-gaien dendak	245
Taldea 25. Kontsumo-gaien dendak	
Ikaztegiak	250
Estantkoak	251
Farmaziak	252
Okindegiak	253
Egunkari eta aldizkari-saltokiak	254
Kiniela-saltokiak	255
Taldeak 26/27. Jarduera Profesionaletarako lokalak	
Abokatuak	260
Arkitektoak eta azterlan-bulegoak	261
Haginlariak	262
Farmaziak	263
Argazki dendak	264
Gestoriak eta autoeskolak	265
Edertze institutuak	266
Inprentak	267
Medikuak	268
Notarioen bulegoak	269
Sindikatuaren bulego eta zentralak	270



2011KOFO0001

Taldea 28. Zerbitzuetarako lokalak	
Eskola, ikastetxe, ikastola, haurtzaindegi eta gainerako irakaskuntza lokalak	280
Elizak, kaperak, kulturako lekuak, komentuak	281
Herri-eraikinak: Udaletxeak, Mankomunitatea, Probintzia, Eusko Jaurlaritza, azokak, hiltegiak	282
Liburutegiak, kultur aretoak, erakustokiak, kirol-elkarteak	283
Polikiroldegiak, igerilekuak, kirol gunek, futbol-zelaiak, zezen plazak	284
Jubilatu Elkarteak, Zaharren egoitzak	285
KATEGORIA 3. Ostalaritza, elikadura eta zerbitzuak.	
Taldeak 30/31. Elikadura	
Hegaztiak eta arrautzak	300
Karameluak	301
Harategiak	302
Kolonialak	303
Gozodendak	304
Ekonomatoak	305
Frutategiak	306
Gozotegiak	307
Arrandegiak	308
Supermerkatuak	309
Janari dendak	310
Esne dendak	311
Taldea 32. Ostatuak	
Ostatuak	320
Fondak	321



2011KOFO0001

Hostalak	322
Hotelak	323
Pentsioak	324
Erresidentziak	325
Taldea 33. Edariak	
Barrak	330
Bodegak	331
Kafetegiak	332
Klubak	333
Pubak	334
Snak-Barrak	335
Tabernak	336
Ardandegiak	337
Taldea 34. Jatorduak	
Askaldegiak	340
Jatetxeak, Self-service-ak	341
Elkarte gastronomikoak	342
Taldea 35. Zerbitzuak	
Bidai agentziak	350
Bankuak	351
Aurrezki-etxeak	352
Aseguru-etxeak	353
Posta, telefonoa, epaitegia, polizia, Ertzaina	354
KATEGORIA 4. Industria jarduerak eta Zerbitzuak	
Taldea 40. Produkzio-industriak	



2011KOFO0001

Aroztegiak, zerrategiak, altzarigintza	400
Errementaldegiak, galdarategiak	401
Soldadura	402
Sopletistak	403
Lantegiak eta industriak oro har	404
Trokeleriak, moldeak eta matrizeak	405
Automobil-konponketak	406
Iturginak	407
Taldea 41. Aisialdi-industriak	
Zine-aretoak	410
Festa-aretoak	411
Jolas aretoak	412
Antzokiak	413
Taldea 42. Zerbitzuak	
Garajeak negozio gisa	420
Ibilgailu-konponketa	421
Industri hornikuntzak	422
Garraio agentziak	423
Garbitasun enpresak	424
KATEGORIA 5. Aurretik itundutako zerbitzuak	
Taldea 50. Aurretik itundutako zerbitzuak	
Aurretik itundutako zerbitzuak	500
Klinikak	501
Ospitaleak	502
Anbulatorioak	503

8. artikulua. Tarifak, ekibalentziak eta irizpideak.



2011KOFO0001

Zergadun bakoitzak, bere kategorian, dagokion tarifaren tasa ordaindu behar du. Tarifa bakoitzeko tasak 1.1 tarifarekiko hurrengo ekibalentzia gordetzen du.

KATEGORIA	TARIFA	LANGILE KOPURUA	EKIBALENTZIAK	TASA (€/URTE)
1. Etxebizitzak	1.0	-	0,40	39,95 €
	1.1	-	1,00	99,88 €
2. Biltegiak eta komertzioak	2.1	≤2	3,18	317,64 €
	2.2	≤5	5,30	529,32 €
	2.3	≤15	10,60	1.058,64 €
	2.4	>15	15,90	1.588,04 €
3. Ostalaritza, elikadura eta zerbitzuak	3.1	≤2	4,24	423,48 €
	3.2	≤5	7,95	794,04 €
	3.3	≤15	13,25	1.323,36 €
	3.4	>15	18,55	1.852,68 €
4. Industria jarduerak eta zerbitzuak	4.0	≤2	3,18	317,60 €
	4.1	≤5	8,48	846,96 €
	4.2	≤15	15,90	1.588,04 €
	4.3	≤50	21,20	2.117,36 €
	4.4	≤100	26,50	2.646,72 €
	4.5	≤500	31,80	3.176,08 €
4.6	>500	37,10	3.705,40 €	
5. Aurretik itundutako zerbitzuak	5.1	-	21,20	2.117,36 €

Tasa hauek aplikatzeko ondorengo irizpideak izango dira kontuan:

1. Etxebizitzak (1 kategoria). Bi tarifetan banatzen dira:
 - a. 1.0. Lurzoru ez urbanizagarrian kokatutako etxebizitzak (landa auzoak), hiri hondakin bilketa puntua 150 metro baino urrunago daukatenak. Tarifa honetan sartzen dira ere artikuluko honetako 3.a. puntuan deskribaturiko kasuak.
 - b. 1.1. Beste etxebizitzak. Tarifa honetan sartzen dira lurzoru urbano edo urbanizagarrietan kokatutako etxebizitzak (artikuluko honetako 3.a. puntuan azaltzen den salbuespenarekin), eta baita lurzoru ez urbanizagarrian kokaturikoak, baina bilketa puntua 150 metro edo gertuago daukatenak, bilketa puntu hori erabiltzailearen auzoan kokaturik dagoen ala ez kontuan izan gabe.
2. Besteak (2, 3, 4 eta 5 kategorietakoak):
 - a. Lurzoru ez urbanizagarrian kokaturikoak (landa auzoetan). Bilketa puntua 150 metro edo gertuago badaukate, dagokien tarifa osoa ordainduko dute. Bilketa puntua 150 metro baino urrunago badaukate, dagokien tarifaren %40a ordainduko dute.



2011KOFO0001

- b. Lurzoru urbano edo urbanizagarrian kokaturiko zergadunak dagokien tarifa osoa ordainduko dute, artikuluko honetako 3.b. puntuaz azaltzen den salbuespenarekin.
3. Lurzoru urbano edo urbanizagarrian kokaturiko zergadunak bilketa puntua 150 metro edo gertuago eduki behar dute. Kasuren baten hau ez bada betetzen, eta Mankomunitateak kasua aztertu ondoren, bilketa puntua 150 metro edo gertuagora jartzea ezinezkoa dela ebazten badu:
 - a. Etxebizitzak: 1.0. tarifa ordainduko du.
 - b. Besteak: dagokion tarifaren %40a ordainduko du.
4. Hiri hondakin bilketaren maiztasuna edo asteko bilketa kopuruak ez du zerikusirik izango tasa gisara erabiltzaileek ordaindu beharko duten zenbatekoarekin.
5. Eraikina edo etxebizitza hutsik egoteak ez du bere jabea dagokion tasa ordaintzetik salbuesten.
6. Jolas elkarteak. Ondorengo parekidetasuna izango dute:
 - a. ≤ 50 bazkide, 3.1 tarifaren parekide izango da.
 - b. > 50 bazkide, 3.2 tarifaren parekide izango da.
7. Jarduera profesionalak edo merkataritza eta zerbitzuen ingurukoak, aldi berean bizileku diren etxebizitza edo lokaletan egiten direnean: ile-apaindegiak, kontsultategiak, etab. Alde batetik etxebizitza hartuko da kontuan, eta bestetik bertan zertzen den jarduera, dagozkien tarifak finkatzeko, zeren eta jarduera profesionalak nahiz etxebizitzak, bakoitzak bere hondakinak sor baititzake eta bakoitzari bere tasa aplikatu behar zaio.
8. Biltegitarako lokalak. Zergaduntzat hartuko da industri edo merkataritza-jardueraren bat biltegian bertan edota bertatik egiten duena; baina ez da zergaduntzat hartuko lokal hori jardueraren baterako beharrezko materialak gordetzeko bakarrik erabiltzen duena, jarduera bera ez biltegian baizik eta beste lokal edo lekuren batean egiten badu udalerrin berean, eta zergadunen erroldan sartua baldin badago.
9. Kultu-lekuak eta komentuak. 2.1. tarifan sailkatuko dira.
10. Eskolak, ikastolak, akademiak, ikastetxeak, haurtzaindegiak, etab. 2. kategorian sailkatuko dira, eta dagokien tarifa aplikatuko zaie irakasle-kopuruaren arabera.
11. Zahar eta ikasleen egoitzak 2. kategorian sailkatuko dira, ohe-kopuruaren araberrako tarifa aplikatuz.



2011KOFO0001

9. artikulua. Errolda.

1. Hiru hilero Errolda bat egingo da; bertan zergadunak agertuko dira, baita Ordenantza honen aplikazioz likidatuko zaizkien kuotak ere. Errolda hori ezagutarazi eta erreklamazioak jasotzeko, jendaurrean jarriko da 15 egunez udaletxeko iragarki-taulan, eta aldi berean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango da argitara, eta ediktu bidez zabalduko da herrian ohikoa den eran.
2. Jendaurrean erakusteko epea bukatu ondoren, aurkezturiko erreklamazioak ebatziko ditu Udalak, eta behin-betiko onetsiko du Errolda, kobrantza-agirietarako oinarritzat hartuko delarik.

10. artikulua. Bajak.

Bajak, beranduenik ere, kobrantza-aldi baten azken lanegunean jakinarazi behar dira, hurrengo kobrantza-aldian eragina izaten hasteko. Baldintza hau betetzen ez dutenak beharturik daude zerga ordaintzera.

Merkataritza, ostalaritza, industria eta zerbitzuetan baja data, zergadunak Udalean aktibitate baja adierazten duen eguna izango da.

11. artikulua. Altak.

Ekitaldi barruan egindako altek, zerga ordaindu beharra sortzen den egunetik izango dute eragina. Administrazioak erroldako altari dagokion likidazioa jakinaraziko die subjektu pasiboei, ondorengo puntuak zehaztuz:

- a) Likidazioaren osagai funtsezkoenak.
- b) Horren aurka jotzeko erabil daitezkeen bide nagusiak, inpugnazioak zein epetan eta zein erakunderen aurrean jar daitezkeen adieraziz.
- c) Zerga-zorra zein lekutan, epetan eta eratan ordaindu behar den.

12. artikulua. Sortzapena.

Tasa hiru hilero kobratuko da eta ordainagiria osoa izango da, eta ezingo da zatitu, zerga ordaindu beharra denboraldi laburrerako sortu ez bada behintzat. Epealdiak urtarrila-martxoa, apirila-ekaina, uztaila-iraila eta urria-abendua izango dira.

B.- ESTOLDERI ZERBITZUA.

TARIFA ETA OINARRIAK

1.- Ur fakturazioarekin. Bere kopuruaren gaineko **%30a**.

2.- A) Hobi septikoa egon, eta beronen jabea edateko uraren hornikuntza udal sarera konektaturik ez badago, hiruhilabeteko **5,58** €ko kopurua kobratuko da.



2011KOFO0001

B) Kolektorera isuriko balitz, eta isurtzailea edateko uraren hornikuntza udal sarera konektaturik ez badago hiruhilabeteko 5,58 €ko kopurua kobratuko da.

Tasa honen bilketa hiruhilabetez behin egingo da eta errezibu bakar batean, edateko uraren Hornikuntzagatiko tasarekin batera.

SALBUESPENAK

1.- Exakzio honen ordainketaz salbuetsiak egongo dira, Estautaren jabetzako eraikinak, Autonomia Erkidegoarenak, Lurralde Historikoarenak, Mankomunitatearenak, eta Udallerriarenak, eta era berean benefizientzia establezimenduak.

2.- Arestian adierazitako salbuespenak, Udalak aitortuko ditu, interesatuak hala eskaturik.

C.- DOKUMENTUAK EMATE ZERBITZUA.

TARIFAK

LEHENA

Udalaren eskumeko espediente mota guztietako instantzia bakoitzean, tramitazio osoagatik aplikatuko den tarifa, tramitazioa hasten denetik amaitzen den arte, ziurtagiria eta hartutako erabakiaz interesatuari egiten zaio notifikazioa barne, honakoa izango da:

LEHENENGO EPIGRAFEA.- Biztanleri Erroldaren eta Udalerriko biztanleen gain

1 zenbakia.- Altak eta Bajak eta Biztanleen Padroiko aldaketak.....	0.- €
2 zenbakia.- Biztanleri erroldan erroldatze ziurtagiriak: - Indarrean	0.- €
- Aurreko erroldetatik.....	0.- €
3 zenbakia.- Bizikidetzak ziurtagiriak	0.- €

BIGARREN EPIGRAFEA.- Udal eskumeneko beste gai batzutan:

1 zenbakia.- Udal bulegoetatik ematen diren, eta espreski tarifaturik ez dauden edozein motako ziurtagiriak orriko	2,23.- €
2 zenbakia.- Dokumentu partikularretan Alkatetzaren ontzat emate eta beste sinadura batzuegatik	1,11.- €
3 zenbakia.- Gainbalio hautamenaren behin behineko likidazioak	2,23.- €
4 zenbakia.- Konpultsak.....	0,32.- €
5 zenbakia.- Oro har komertzioen Iharduera gogaikarri, osasungaitz, eta kaltegarrien espedienteak, baimena ematen denean.	225,93.- €
- Hostalaritza eta industrien Iharduera, gogaikarri, osasungaitz, eta kaltegarrien	



2011KOFO0001

espedienteak, baimena ematen denean.	270,84.- €
6 zenbakia.- Espediente berberak, baimenik ematen ez denean, oro har	109,75.- €

Duten izaera eta neurriagatik eta bertan leudekeen zehaztapenen, edo Ingurugiro Departamenduak ezarritako zuzenketa neurrien betetzearen kontrol eta ikuskapenerako, udal zerbitzuen aukerak gainditzeko dituztela eta beste hirugarren batzuen esku hartzea eskatzen duten iharduera Espedienteen kasuan, Udal honek beretzako gordetzen du gerta daitezkeen kostuak epigrafe honen pean sartzeko ahalmena, espedientearen sustatzaileari jakinerazi ondoren.

7 zenbakia.- espreski tarifatu gabeko beste edozein espediente	4,47.- €
8 zenbakia.- Fotokopiak: * Neurria DNI A4, bakoitza	0,30.- €
* Neurria DNI A3, bakoitza	0,38.- €
9 zenbakia.- Jabetza eskualdatzea eta kontribuzioetako beste inprimaki batzuk	5,58.- €
10 zenbakia.- Errolda fiskaletik eta biztanlegoenetik zerrendak ateratzea. Baimenarekin.	5,58.- €
11 zenbakia.- 4. kategoriako arma-txartela tramitatzea.....	5,74 ,-€

HIRUGARREN EPIGRAFEA.- Hirigintzako Informazio eta tramitazioak:

- Oinarrizko informazioa	30,35 €
- Informazio orokorra (AASS, BBEB, Zatikako Egitamu, Etab.ei buruzkoa).....	60,65 €
- Informazio zehatza (araudi, ordenantza, zatikako egitamu edo plangintza bereziei buruzkoa)	104,00 €
- Zatikako Egitasmua	1.730,90 €
- Egitasmu Berezia	1.730,90 €
- Detallezko azterketa	867,85 €
- Hirigintza proiektu	867,85 €
- Konpentsazio batzordearen eraketa, estatutuen eta iharduera oinarrien onarpena	867,85 €
- GAO iragarkiak (Konpentsazio Batzordeen eraketan, estatutuen eta iharduera oinarrien onarpenean)	Kostu erreala
- Konpentsazio/Birpartzelazio proiektuak	867,85 €
- Konpentsazio Batzordearen aldeko besterentze espedienteak	1.730,90 €
- Konpentsazio Proiektuan gauzatze subsidiarioaren prozeduraren gestioa, kostuaren	%20a
- Aurri Esoedientearen tramitazioa, Udalak ofizioz egiten duenean	867,85 €

BIGARREN

2.- Aurreko tarifak aplikatzearen ondorioz ateratzen diren kuotak, 100eko 50 ean gehituko dira, interesatuek, sortzapearen arrazoia izango diren espedienteen tramitazioa premiatasunez eskatuz gero.

HIRUGARREN

3.1.- Exakzio honegatik esijituko diren kuotak, tramitatu beharreko espediente bakoitzeko kitatuko dira, haietan Udal Administrazioarentzako iharduten ez duten profesional eta peritoen ordainsariak izan ezik, espedienteak errekeritzen dituen ondorengo tramiteei dagozkien beste udal eskubide guztiak barne egonik.



2011KOFO0001

3.2.- Arestian adierazitakoaren ondorioetarako, espedientea, instantzia edo gradu bakoitzeko administrazioko ebazpenaren aurrekin eta funtsa izango diren dokumentu eta iharduera guztiak dira.

SALBUESPEN ETA HOBARIAK

LAUGARRENA

4.1.- Eskubideen ordainketaz salbuetsiak geratzen dira ondoren adieraziko diren pertsona natural nahiz juridikoei eskaturik tramitatzen diren espedienteak:

- A. Legezko aginduz pobre aitortutakoak.
- B. Benefizientzi Erroldan arras pobre gisa inskribatutakoak.
- C. Pobre aitortuak izan diren prozedura judizialean, eragina izan behar duten espedienteekiko pobreziaren onura judiziala lortu dutenak.
- D. Jurisdikzio penalean, militarrean laborean eta Adin Txikikoen Auzitegien jurisdikzioan ondorioa izan behar duten ebazpenak dituzten espedienteekiko.

4.2.- Onura lortu duten prozedura judizialean eragina izan behar duten erdi pobreziaren onura judiziala lortu duten pertsonen eskariz irekitako espedienteek tramitazioari dagozkion kuoten zenbatekoaren %50aren hobaria edukiko dute.

GESTIO ARAUAK

BOSGARRENA

5.1.- Espediente bat hasiko duten dokumentuak udal bulegoetan aurkeztu beharko dira, edo Administrazio Prozeduraren Legearen 66 artikuluan seinalizatutakoetan.

5.2.- Udal Bulegoetan dokumentu horiek jasotzean, bertako ardura duen funtzionarioak dagokion zigilua jarriko du haietan, eta bertan zera azalduko da: dokumentuari dagokion ordena zenbakia, aurkezpen eguna, ezarriko zaion Ordenantza honetako tarifaren epigrafea, eta jasotako eskubideen zenbatekoa.

D.- HIRIGINTZAKO BAIMENAK EMATEAGATIKO JARDUERA:

Obrak egiteko Baimena:

- Kostua 6.010,12 €tik behera denean	13,10 €
- Kostua 6.010,12 € eta 30.050,61 € artean.....	65,35 €
- Kostua 30.050,61 € eta 90.151,82 € artean.....	196,00 €
- 90.151,82 €tik gorako kostua.....	392,30 €

Lur zatiak Banatu edo biltzeagatiko Baimena:

- Lur hiritar edo hiritargarriko baimenagatik	236,15 €
- Landa lurreko baimenagatik	70,85 €

Eraikuntza lehenengo aldiz hartu edo erabiltzeagatiko baimena:

- Etxebizitza edo lokala	13,10 €
- Komertzio edo zerbitzu publiko.....	32,50 €
- Industria edo hostalaritza.....	65,35 €

Merkataritza erroterak jartzeagatiko lizentzia eta baimen

<u>administratiboa:</u>	35,55 €
-------------------------------	---------



2011KOFO0001

Tabernek, herri bidean aulkiak eta mahaiak jartzeko lizentzia eta baimen administratiboa:

- Denboraldi edo urterako baimena eskatzeagatik30,00 €

SALBUESPEN ETA HOBARIAK

LEHENA

1.- Esakzio hau ordaintzeaz salbuetsiak egongo diren lizentziak honako hauek dira:

- a) Zuzenean edo Estatuaren Administrazioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Diputazioaren, eta Mankomunitatearen edo Udalak osatzen dituen elkarten kontratuz egindako instalakuntza, obra eta eraikuntzen lizentziak, errepide, trenbide, portu, aireportu, lan hidrauliko, saneamendu eta hondakin uren lanetara zuzentzen direnean eta berak zuzenki egiten dituen lanen lizentziak..
- b) Zuzenean edo Estatuaren Administrazioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Diputazioaren, eta Mankomunitatearen edo Udalak osatzen dituen elkarten kontratuz egindako, nazioaren segurtasun eta defentsari interesatzen zaizkion obren lizentziak
- c) Tradiziozko Jaiak direla aurrera eramango diren ez ohiko apainketa eta edertze lanen lizentziak.

BIGARREN

2.1.- Euren kuoten, legez aitortutako hobaria jasoko dute, babes ofizialeko etxebizitzien eraikuntza eta obretarako lizentziek, beti ere Babes Ofizialeko Etxebizitzien legediak ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen badituzte.

2.2.- %90eko hobaria jasoko dute, Erdi Gune Historikoaren Egitamu Bereziari lotutako Barne Birgaitze Arearen barnean dauden eraikinetan egin beharreko lanetan, Tasa honengatik kitagarri diren kuotek, Eusko Jaurlaritzaren Abenduaren 5eko 278/83 Dekretuaren onurak jaso edo ez..

2.3.- %50eko honaria jasoko dute, Birgaitze isolatuaren barne dauden eraikinetan egin beharreko lanetan, tasa honengatik kitagarri diren kuotek, Birgaitze Isolatua Eusko Jaurlaritzaren Abenduaren 5eko 278/83 dekretuaren terminuetan ulertuz, nahiz adierazitako Dekretuaren onurak jaso edo ez.

E.- LOKAL KOMERTZIALAK IREKITZEKO BAIMENA EMATE ZERBITUAGATIK:

TARIFAK

LEHENA

1.- Iharduera bakoitzeko kobratu beharreko diru kopuruak honako hauek izango dira:

1.- Iharduera Komertziala	416,85 €
2.- Zerbitzu Iharduera	625,80 €
3.- Hostalaritza Iharduer.....	1.041,40 €
4.- Industria Iharduera < 250 m2.....	625,80 €
5.- Industria Iharduera > 250 m2.....	939,85 €
6.- Finantz erakundeak	1.328,30 €

BIGARREN

2.- Behin behineko izaerarekin irekitako establezimenduen kasuan, eta eskarian horrela adierazten bada, tarifa ondoren adierazten den moduan gutxituko da:

- a) Behin behingotasunez irekitako lokalaren erabilera epea urte betetik hiru urte bitartekoa bada, 1 eta 2 zenbakietako tarifak %80an gutxituko dira.



2011KOFO0001

- b) Erabilera hori urte betez azpikoa bada %50era gutxituko da.

HIRUGARRENA

3.- Behin behingotasunez irekitako kasuetarako, murriztutako tipoa aplikatzeko aitortutako denbora pasa eta interesatuak Udal Administrazioaren aurrean behin behingotasunez duen lokala utzi egin duela frogatzen ez badu, likidazio berria egingo zaio, aplikatutako denboraren eta artikuluko honetako 1 eta 2 zenbakietan arau orokor gisa ezarritakoaren arteko diferentziagatik.

SALBUESPEN ETA HOBARIAK

LAUGARRENA

4.1.- Lege eta Xedapen Orokorretan aurreikusitakoez gain, tasaren ordainketaz salbuesiak geratuko dira, baina ez dagokion baimena edukitzeaz:

- a) Lokaletan egin beharreko lanak direla eta premiatasunezko denboraldiko egoera batek eragindako lekualdaketak, baldin eta hauek egoki den baimena badute.
b) Derrigorrezko eraisketa, hondoratze, eta suteek eragindako lekualdatzeak eta agindu eta xedapen ofizialen betetzean egiaztatzen direnak.

4.2.- Aurreko zenbakiko a) atalean ezarritako salbuespena, lokal zaharra, konpondu edo berregin eta ireki artekoa izan da, baldin eta itxi zenetik ireki arte 8 hilabete iragaten ez badira.

4.3.- b) atalari dagokionez, salbuespenak lokal zaharra, konpondua edo birreraikia, hartuko du edo bestela hura ordezkatzeko duen beste lokal berri bat baldin eta jabeak zaharra uzteagatik inolako kalte ordainik jaso ez badu.

4.4.- Bi salbuespenei komunak izango zaizkien baldintzak dira, berriro irekiko den lokalak zaharrak zuen azalero berbera izatea eta bertan aurrera eramango den iharduera lehengo berbera izatea.

BOSTGARRENA

5.1.- Euren kuotetan %50eko hobaria edukiko dute, nahiz eta toleratua eta utzia izan instalatu ezin diren zonaldeetatik, Udal Administrazioak egokiago jotzen dituen beste zonalde batzutura egindako establezimendu edo lokalen lekualdaketek, lokal berriari iharduera berbera aurrera eramaten bada.

5.2.- Euren kuoten %80ko hobaria edukiko dute:

- a) "Mortis causa" delakoaren ondorengotzagatik lehen mailako ahaidetasunen arteko titular aldaketek, baimen eragilea eman zenetik 30 urte igaro ez badira behintzat.
b) Bazkideren bat hiltzearen ondorioz emandako Elkarte ez Anonimoen enpresa izenaren aldaketak.

F.- TAXISTA ETA ALOKAIRUKO BEREBILEN BAIMENAK:

TARIFAK

Indarrean sartuko diren tarifak honokohauak izango dira:

LEHENENGO EPIGRAFEA.

- Taxista iharduera betetzeko baimenak:

1.- Ematen den Udal Baimen bakoitza.....	1.360,20 €
2.- Baimenaren urtebeteko erabilpenagatik	92,15 €



2011KOFO0001

- 3.- Baimena jabez aldatu eta baimentzeagatik 1.844,25 €
- 4.- Baimendutako kotxea aldatzeagatik 22,35 €

Lehenengo Epigrafean jasoten diren "Mortis Causa"k eragina jabez aldatzerakoan kuotak %80ko hobarria izango lukete.

BIGARREN EPIGRAFEA.

- Alokairuko txoferrik gabeko baimenak:
 - 1.- Ematen den Udal Baimen bakoitzeko 196,20 €
 - 2.- Baimenaren urtebeteko erabilpenagatik 18,70 €
 - 3.- Baimendutako berebela aldatzeagatik 22,35 €

G.- HILERRIETAN ZERBITZU EMATEA.

- Ehorzketa eskubideak nitxo edo hobian 79,75 €
- Ehorzketa eskubideak panteoian 129,90 €
- Hezurtegia baten lagapena, 20 urterako 649,35 €
- Ehorzketa komuneko nitxo baten edo hobian egindako ehorzketaren zesia 10 urterako 132,90 €
- Gorpu-hondarrak alde batetik bestera eramatea 79,75 €

I-1 ZERBITZUAK EMATE ETA ZAINDUZ-EKO INSTALAKUNTZAK ERABILTZEAGATIKO TARIFA.

Kuotak. Hileroko abonauk.

Euroak

1.-Famili abonua (seme-alabadun barik edo 18 urte arteko seme-alabadunekin.)

- Zainduz, Aretxabaletan erroldatuentzat 9,78
- Zainduz, Aretxabaletan erroldatu gabeentzat 10,75
- Bazkideen alta berrietarako matrikula 12,35
- Debagoieneko kirol etxe Mankomunatuak. Urtekoa 212,25
- Debagoieneko kirol etxe Mankomunatuak -Arrasate Plus. Urtekoa 313,85

2.- Norbanakoen Abonauk

2.1. 19 urtetik gorakoak

- Zainduz, Aretxabaletan erroldatuentzat 7,72
- Zainduz, Aretxabaletan erroldatu gabeentzat 8,50
- Bazkideen alta berrietarako matrikula 10,29
- Debagoieneko kirol etxe Mankomunatuak. Urtekoa 152,30
- Debagoieneko kirol etxe Mankomunatuak -Arrasate Plus. Urtekoa 202,92

2.2. 4tik 18 urte artekoak, langabetuak (INEMeko ziurtagiriaz), Ikasleak, Ezgaitu fisiko edota psikikoak (>%50).

- Zainduz, Aretxabaletan erroldatuentzat 4,94
- Zainduz, Aretxabaletan erroldatu gabeentzat 5,43
- Bazkideen alta berrietarako matrikula 6,17
- Debagoieneko kirol etxe Mankomunatuak 106,00
- Debagoieneko kirol etxe Mankomunatuak -Arrasate Plus 120,00

Irailaren 1etik aurrera abonatuaren tarifetan %50aren murrizketa aplikatuko da eta azaroaren 1etik %75ekoa.

2.- Eguneroko sarrera kuota.

- 16 urtez gorakoak 2,55
- 16 urtez gorakoak (10 sarrerako bonoak) 20,58

3.- Instalazioen erabilera.



2011KOFO0001

- Zainduz, aldagelak eta dutxa erabiltzea1,29

4.- Jarduera eta Ikastaroak.

	<u>Euroak/hilab.</u>
- Aerobic. Abonatuentzat (astean 2 saio)	27,07
- Aerobic. Ez abonatuentzat (astean 2 saio)	35,21
- Mantentze gimnasia eta Multifitnes. Abonatuentzat (3 saio).....	24,45
- Mantentze gimnasia eta Multifitnes. Ez abonatuentzat (3 saio).....	33,44
- Multifitnes. Abonatuentzat (3 saio).....	27,07
- Multifitnes. Ez abonatuentzat (3 saio).....	35,21
- 3. Adinekoen gimnasia abonatuentzat.....	12,20
- 3. Adinekoen gimnasia ez abonatuentzat	17,55
- Atzegiko Gimnasia abonatuentzat (2 saio)	19,53
- Atzegiko Gimnasia ez abonatuentzat (2 saio).....	23,44
- Spinning, abonatuentzat (astean saio bat)	16,27
- Spinning ez abonatuentzat (astean saio bat).....	21,14
- Spinning, abonatuentzat (bi saio asteen).....	27,07
- Spinning ez abonatuentzat (bi saio asteen).....	35,21
- Tonifikazioa abonatuentzat (bi saio asteen)	27,07
- Tonifikazioa ez abonatuentzat (bi saio asteen).....	35,21
- Tonifikazioa abonatuentzat (astean saio bat)	16,27
- Tonifikazioa ez abonatuentzat (astean saio bat).....	21,14
- Strech-Pilates abonatuentzat (bi saio asteen)	34,83
- Strech-Pilates ez abonatuentzat (bi saio asteen).....	45,27
- Tai-Chi abonatuentzat (2 saio asteen).....	34,83
- Tai-Chi ez abonatuentzak (2 saio asteen).....	45,27
- Fit-Bizkarra abonatuentzat (2 saio asteen).....	27,07
- Fit-Bizkarra ez abonatuentzat (2 saio asteen).....	35,21
- Banakako entrenamendua (planifikazioa) abonatuentzat.....	26,75

5.- Txartela berritzea.

Originala galdu edo beste gauza batengatik 3,65 €/aldiko.

I-2. IBARRAKO KIROL ZONALDEA.

<u>ALDAGELAK</u>	<u>PREZIOA</u>
- U.D.A.ko talde federatuetako kideak	Doan.
- Aretxabaletako partikularrak	1,85 €/personako
- Aretxabaletatik kanpoko talde federatuetako kideak.....	3,78 €/ personako
- Eskolarteko txapelketako taldeak jokatzen den partiduan Aretxabaleta edo Eskoriatzako Luis Eceiza eskolako talde bat ari denean, eta UDAko konpromezuak eragozken ez dutenean	Doan

FUTBOL ZELAIKO ALOKAIRUA

	Argindarrik gabe	Argindarra %50a	Argindarra %100.
- UDAn federaturiko Taldeetakoak.....	Doan	Doan	Doan



2011KOFO0001

- Aretxabaletako partikularrak Zelai erdi	37,90 €/o	56,90 €/o	Ezin da
- Aretxabaletako partikularra Zelai osoa.....	75,80 €/o	94,80 €/o	Ezin da
- Partidu ofizial nahiz Aretxabaleatki kanpoko talde federatuen entrenamenduak. Gehiengo erabilera 2 ordu.....	151,60 €/o	--	189,55 €/o
- Eskolarteko txapelketako taldeak jokatzeko den partiduan Aretxabaleta edo Eskoriatzako Luis Eceiza eskolako talde bat ari denean, eta UDAko konpromezuak eragozten ez dutenean.....	Doan	Doan	Doan
- Aretxabaletako Udalak bereziki baimendutako beste erabilera	Doan	--	--

I-3. ITURRIGORRI FRONTOIKO ZERBITZUAK ESKEINI ETA INSTALAKUNTZEN ERABILERAGATIKO TARIFA

- Ordu bakoitzeko..... 5,15 €

J.- UR EDANGARRIAREN HORNIKUNTZA

1.- ETXE ETA KOMERTZIO ERABILERA KOA

* Hiruhilabetetako gutxiengoa 30 m³ 0,88 €/m³
* 30,1 m³ tik gorakoa 1,77 €/m³

2.- ERABILERA INDUSTRIALA, OBRA, HOSTALARITZA, ARRAINDEGI ETA TINTATEGIAK.

* Hiruhilabetetako gutxiengoa 60 m³ 1,65 €/m³
* 60,1 m³ gorakoa..... 2,21 €/m³

Kontadorearen ikurketa, fakturazioa eta errezibuaren kobrantza hiruhilabetean behin egingo da.

Hiruhilabetetako diru-bilketa errezibu bakar batean egingo da, estolderi zerbitzuagatik udal tasakin batera.

Bi hiruhilabetez jarraian ordaintzetik uzten bada, zerbitzuaren emakidari uko egiten zaiola ulertuko da. Era berean kontadorearen desbideraketa nahiz manipulaziorik ematen bada eta kalteak konpondu edo kontadorea irakurtzera doanari etxeko atea irekitzen ez bazaio ere zerbitzuaren emakidari uko egiten zaiola ulertuko da.

3.- UR SARERA LOTZEKO ESKUBIDEAK

- A) Kontagailua jarri edo lehenengo aldiz ur sarearekin lotzea, etxe eta komertzio erabilera koa denean30,90 €
- B) Dagoeneko lotunea eginda izan eta desprezintatzea, etxe eta komertzio erabilera koa denean15,55 €
- C) Ur sarera lehenengo aldiz lotzea, ugazaba edo bultzatzaileari82,00 €
- D) Ur sarea leku aldaketatik lotzea, ugazaba edo bultzatzaileari132,75 €



2011KOFO0001

E) Erabilera industriala:

- 1,5 pulgadatako hodia391,75 €
- 2,5 pulgadatako hodia629,70 €
- 3 edo pulgada gehiagotako hodia.....1.089,55 €

K.- IRAKASKUNTZA BEREZIAK EMATEAGATIKO TASA

- Udaleku Irekietan matrikula..... 47,30 €/ikasleko/3 asteko.
Hirugarren anai-arrebak ez du matrikularik ordainduko
- Eskulanetako ikastaroetan matrikula..... 40,40 €/ikasleko/ 30 ordu.
- Ludotekako matrikula, urterako.....36,10 €/ikasleko.
Hirugarren anai-arrebak ez du matrikularik ordainduko.
- 2 eta 4 ordu bitarteko hainbat ikastaro 5,00 €/ikasleko.

L.- MATERIALAREN ZERBITZUAK UZTEAGATIKO TASA.

- Argiteri publikoaren eskailera. Ordu edo zati bakoitzeko 8,65 €
- Lan-Roverra. Ordu edo zati bakoitzeko 25,90 €
- Tablaura (podium desmuntagarriak). 3 eguneko edo zati bakoitzeko 129,90 €
- Mahaiak. Unitateko eta 3 egun edo zati bakoitzeko..... 1,06 €
- Aulkiak. Unitateko eta e egun edo zati bakoitzeko..... 0,49 €

Tablaur, aulki eta mahaien gisako materialaren zerbitzuen uztean, uzteko epe minimoa 3 egunekoa dela ulertzen da (bilketa, erabilera eta ematea). Bilketa egiten den egunetik eman edo entregatzen diren 4 egun iragaten badira, hiru lehen egunengatik kobratuko litzateke eta tabalauaren kasuan adibidez 129,90 € eta hurrengo egunagatik beste 129,90 €. Beraz lehenengo hiru egunak unitate bakar bat bezala kontatuko dira eta gainontzeko egun nahiz zati bakoitza unitate bat bezala.

M.- HAUR ESKOLAKO UDAL ZERBITZUA.

* 2012ko urtarriletik uztaileira:

- + 2011 urtean jaiotakoak, 0-1 urte bitartean 192,65 €/hileko
- + 2010 urtean jaiotakoak, 1-2 urte artean 184,90 €/hileko
- + 2009 urtean jaiotakoak, 2-3 urte artean 89,85 €/hileko

* 2012ko irailetik abendura:

- + 2012 urtean jaiotakoak, 0-1 urte bitartean 198,25 €/hileko
- + 2011 urtean jaiotakoak, 1-2 urte artean 190,25 €/hileko
- + 2010 urtean jaiotakoak, 2-3 urte artean 92,45 €/hileko

Ñ.- ANIMALIAK EDUKI ETA BABESTEA.

- Arrisksutsuak izan daitezkeen animaliak lizentzia eskaera eta erregistroa..... 26,60 €
- Noraezean dabiltzan txakurrak jasotzea:
 - Txakurra jasotzeagatik 26,60 €
 - Txakurtegiaren edukitzeagatik/eguneko 10,65 €

Zerbitzu Publikoak eman edo Iharduera Administrazioak egiteagatik Tasen Ordenantza Arautzailea, eta haren osagarri den ERANSKIN hau , 2011ko urriaren 10ean onartu zen behin betikoz.

ALKATEA,

IDAZKARIA,